

2012*13*

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinf nica de Euskadi

Concierto n  2646. kontzertua

09*

Musika Irekia
M sica Abierta

15
Martxoak / Marzo
20:00 h

Bilbao
Donostia / San Sebasti n
Vitoria / Gasteiz
Pamplona / Iru na



EUSKADIKO
ORKESTRA



E U S K A D I K O
O R K E S T R A

Andr s Orozco-Estrada

zuzendari titularra / director titular

Andrey Boreyko

zuzendari printzibal gonbidatua / director principal invitado

Gaurko kontzertua El concierto de hoy

BIRTUOSISMO MOTAK

XI. Pablo Sarasate Lehiaketaren irabazle Ana Mar a Valderramak Saint-Sa nsek birtuoso handi nafarrari eskainitako lanetako bat joko du. *Biolin eta orkestrarako 3. kontzertua* (1880), aurrekoak baino errazagoa bada ere teknikoki, beste biak baino askoz ere ospetsuagoa da bere kolore-sorta eta espresio-zolitasunari esker. Saint-Sa nsen kontzertuaren garaikide diren bariazio sortak irekiko du kontzertua, Dvor ken *Sinfonia-bariazioak* (1877). "Bariaezin" den gai baten bariazio horiek -hori baitzen lagun batek Dvor ki proposaturiko erronkaberere sinfonia-zikloari loturiko ezinbesteko osagai gisa hartzen dira egun. Shostakovitchen *1. Sinfoniak* amaiera emango dio programari. Konposizio-birtuosismoz beteriko lan eder honekin graduatuko zen nerabe errusiarra Leningradeko Kontserbatorioan.

TIPOS DE VIRTUOSISMO

La ganadora del XI. Concurso Pablo Sarasate, Ana Mar a Valderrama, interpreta una de las obras que Saint-Sa ns dedic  al gran virtuoso navarro. El *Concierto para viol n y orquesta n 3* (1880), si bien t cnicamente menos exigente que sus predecesores, debe a su colorismo y sutileza expresiva el haberse convertido en el m s interpretado de los tres. Abrir  la velada un set de variaciones estrictamente contempor neo del concierto de Saint-Sa ns, las *Variaciones Sinf nicas* de Dvor k (1877). Estas variaciones sobre una tema "imposible de variar" -ese era el reto que le propuso a Dvor k uno de sus amigos- son consideradas un complemento indispensable de su ciclo de sinfon as. Cierra el programa la *Sinfon a n 1* de Shostakovitch, el impecable ejercicio de virtuosismo compositivo con el que el ruso, a n adolescente, se gradu  en el Conservatorio de Leningrado.

Mikel Chamizo
testuak / textos

Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad P blica del Gobierno Vasco



I. Antonin Dvor k (1841-1904)

Variaciones Sinf nicas, opus 78, B 70 [22']*

Tema (Lento e molto tranquillo) y 27 variaciones
Finale: Allegro maestoso

Camille Saint-Sa ns (1835-1921)

Concierto para viol n y orquesta n 3 en si menor,
opus 61 [25']

- I. Allegro non troppo
- II. Andantino quasi allegretto
- III. Molto moderato e maestoso – Allegro non troppo

II. Dmitri Shostakovitch (1906-1975)

Sinfon a n 1 en fa menor, opus 10 [30']

- I. Allegretto-Allegro non troppo
- II. Allegro
- III. Lento
- IV. Allegro molto

*Lehen aldiz interpretaturiko obra

*Obra interpretada por primera vez

Lorenz Nasturica Herschcowici, kontzertinoa / concertino

Ilyich Rivas, zuzendaria / director

Ana Mar a Valderrama, biolina / viol n

XI. Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketako irabazlea
Ganadora del XI Concurso Internacional de Viol n Pablo Sarasate

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi



Egitarauari Oharrak Notas al Programa

I. Variaciones Sinf nicas, opus 78, B70

Anton n Dvor k (Nelahozeves, 8 de septiembre de 1841 – Praga, 1 de mayo de 1904)

1890ean, bere nazioarteko ibilbidearen gailurrean, mirespen-eskutitz bat jaso zuen Dvor kek: abesbatza-zuzendari txekiar bat balakari eta apal agertzen zen bere herrikidearen jeinuaren aurrean. Honela arrapostu zion Dvor kek, mezuaren tonuarekin deseroso: "musikari txekiar bat besterik ez naiz. Ez dut gehiegizko apaltasuna gustuko eta nire ibilbidea badut ere musikaren munduan, nintzena besterik ez naiz: musikari txekiar xume bat". 1877an idatzi zituen *Bariazio Sinfonikoak*. Brahmsen urte hartantxe ezagutu zuen Dvor k, eta presioa egin zuen bere argitaletxean, Simrock, kontrata zezaten. Dvor k "musikari txekiar" bat baino ez zen orduan, ordea; Pragako Adalberto Deuna elizako organo-jolea. Eta lan ugari idatziak bazituen ere ordurako, bost sinfonia barne, bere lan gehienak Txekiako musika munduan interpretatzen ziren nagusiki. *Bariazio Sinfonikoak*, esaterako, urte hartako abenduaren 2an estreinatu ziren, Pragan, Antzoki Txekiarren Behin-behineko Orkestraren ekimenez: Sm chov auzoan eliza bat eraikitzea zen xedea eta ekitaldi bat antolatu zuten dirua lortzeko. Ongintzako kontzertua zenez ez zen prentsarik egon eta estreinaldiak ez zuen apenas oihartzunik izan. Simrockek, ondorioz, ez zuen partitura argitaratu eta horrek lanaren kalitateari buruzko zalantza handiak sortu zituen Dvor kengan. Hamar urte beranduago, 1887an, Hans Richterrek *Bariazio Sinfonikoak* berrestreinatu zituen Londres eta Vienan, arrakasta handia lortuz. Orduan bai, argitaletxeak argitaratu zituen, baina lan berria balitz bezala –opus 78 da ondorioz, eta ez kronologikoki zegokion opus 28a-. Iraganean argitaragarria ez zena -tokiko arrakasta urriarengatik-, argitaragarria zen orain -nazioarteko arrakasta izan eta gero-; musika berbera bazen ere. "Zergatik gorde duzu hainbeste denboran?", galdetu zion Richterrek eskutitz batean. "Bariazio hauek zure lanik onenen artean egon daitezke".

20 minutuko fresko sinfoniko hau osatzen duten bariazioen abiapuntua Dvor k beraren *Biolinista bat naiz* abesbatza-lanaren doinua da. Aipatua,

En 1890, en la plenitud de su carrera internacional, Dvor k recib  una admirativa carta del director de un coro rural checo, quien se mostraba servil y humilde ante el genio de su compatriota. Dvor k, inc modo por el tono del mensaje, le respondi  as : "Yo solo soy un m sico checo, que disgusta de esta humildad exagerada, y aunque me haya movido un poco por el gran mundo musical, sigo siendo justo lo que era: un simple m sico checo". Las *Variaciones Sinf nicas* fueron escritas en 1877, el a o en que Dvor k fue descubierto por Brahms, quien presion  a su editorial, Simrock, para que lo fichase. Pero en aquella  poca Dvor k todav a era "un m sico checo", el organista de la Iglesia de San Adalberto de Praga, y aunque hab a compuesto mucho en los a os previos, con hasta cinco sinfon as en su haber, casi toda su m sica era interpretada dentro del activo circuito musical checo. Las *Variaciones Sinf nicas*, por ejemplo, se escucharon por primera vez el 2 de diciembre de ese mismo a o, en Praga, en el transcurso de una velada que la Orquesta Provisional del Teatro Checo ofreci  con la finalidad de recaudar dinero para la construcci n de una nueva iglesia en el distrito de Sm chov. Al tratarse de un concierto ben fico, la prensa no acudi  y el estreno apenas goz  de repercusi n, por lo que Simrock se neg  a publicar la partitura, generando en Dvor k una fuerte inseguridad sobre la calidad de la obra. No fue hasta diez a os m s tarde, en 1887, cuando Hans Richter reestren  las *Variaciones Sinf nicas* en Londres y Viena con enorme  xito, que el editor accedi  a su publicaci n, aunque haci ndola pasar por una obra nueva -esto explica su elevado n mero de opus, el 78, en vez del 28 que le corresponder a por cronolog a-. Lo que antes no era digno de ser publicado -por su escaso  xito local- ahora s  lo era -por su gran  xito internacional-, aunque la m sica segu a siendo la misma. " Por qu  la ha guardado durante tanto tiempo?", le preguntaba Richter en una carta. "Estas variaciones pueden ocupar un lugar entre sus mejores composiciones".



musikari ibiltariaren zoriona azaltzen duen Adolf Heyduk txekiarraren olerki batean oinarrituta dago. Abestiak, 1877ko urtarrilean idatzia, esaldi-egitura irregularra dauka; ondorioz, ez luke aproposena izan behar ohiko bariazio-sail bat idazteko. Dvor ken talentuak, ordea, aipatu oztupoa gainditu eta teknikoki bikainak eta erabat orijinalak diren 27 bariazio motz atera zituen. Lehen hamaseiak, kontrapuntu- zein instrumentu-baliabide ugariak erabiltzeaz gain, jatorrizko neurria eta do maiorreko tonalitetea mantentzen dituzte. *Scherzo 17. Bariazio*tik aurrera, baina, doinu-gaia utzi eta Dvor ken irudimena ausart hasten da hegan: dramatismo intentsua hartzen du pixkanaka-pixkanaka, zenbait unetan polka bat dirudien azken fuga bikain eta zabalean amaituz.

Dvor ken *Bariazio Sinfonikoak* orkestra-errepertorioaren nagusienetakoak dira ziurrenik, Brahmsen *Haydnen doinu baten inguruko bariazioak* eta Euskadiko Orkestrak azaroan jo zituen Elgarren *Enigma Bariazioekin* batera. Dvor kek Elgarrengan izan zuen eragina ezaguna da. Honela idatzi zuen musikagile ingelesak, 27 urte zituela, Dvor kek Erresuma Batura egindako bisita ugarietako batean bere agindupean biolin-jole gisa aritu eta gero. "Dvor ken musika entzun zenezan gustatuko litzaidake -idatzi zion Elgarrek lagun bati-. Liluragarria da, erabat melodikoa eta adimentsua, eta bere orkestrazioa bikaina da: inoiz ez da ahul, instrumentu gutxi erabiltzen baditu ere. Ezin dut deskribatu: entzun beharra dago".

Las variaciones que componen este fresco sinf nico de veinte minutos toman como punto de partida la melod a de una obra coral del propio Dvor k, *Soy un violinista*, basada en un poema del poeta checo Adolf Heyduk que habla de la felicidad de ser un m sico errante. La canci n, compuesta en enero de 1877, tiene una estructura de frases irregular, lo que la har a, a priori, poco apta para un set de variaciones tradicional. Sin embargo, el talento de Dvor k logr  superar este handicap para extraer del tema 27 breves variaciones de gran magisterio t cnico y originalidad. Las dieciseis primeras mantienen el comp s original y la tonalidad de do mayor, experimentando con todo tipo de recursos contrapuntisticos e instrumentales. Pero es a partir de la *Variaci n n 17, Scherzo*, que la imaginaci n de Dvor k comienza a despegarse del tema y a volar con mayor atrevimiento, adquiriendo progresivamente un intenso dramatismo que desemboca en la esplendorosa y extensa fuga final, que por momentos parece transformarse en una polca.

Las *Variaciones Sinf nicas* de Dvor k son, seguramente, las m s importantes del repertorio orquestal junto a las *Variaciones sobre un tema de Haydn* de Brahms y las *Variaciones Enigma* de Elgar, que la Orquesta de Euskadi interpret  en noviembre. La influencia de Dvor k sobre Elgar es bien conocida, y el compositor ingl s dej  testimonio de ella a los 27 a os, mientras trabajaba como violinista a las  rdenes de Dvor k en una de sus m ltiples visitas al Reino Unido. "Me gustar a que pudieras escuchar la m sica de Dvor k -le escribi  Elgar a un amigo-. Es simplemente encantadora, tan melodiosa e inteligente y con una orquestaci n maravillosa: no importa qu  pocos instrumentos utilice, nunca suena d bil. No puedo describirla: hay que escucharla".

Concierto para viol n y orquesta n 3 en si menor, opus 61

Camille Saint-Sa ens (Par s, 9 de octubre de 1835 - Argel, 16 de diciembre de 1921)

Saint-Sa ensk biolinerako idatzi zuen 3. kontzertua errazena da, teknikoki, hiruen artean. Zergatik erabakiko ote zuen Saint-Sa ensk bere zailtasuna mugatzea, historiako biolin-jole handienetakoa zen bere lagun Pablo Sarasaterentzat idatzi bazuen? Izan ere, Sarasateren merituetako bat Paganiniren estereotipoarekin apurtzea izan zen, biolin-jole birtuosoarena alegia. Bere teknika apartarekin baino bere soinuarekin liluratu zuten lehen biolin-joleetakoa izan zen. "Gozotasun eta

El tercero de los conciertos para viol n de Saint-Sa ens es tambi n el de menor exigencia t cnica de los tres.  Por qu  decidir a Saint-Sa ens limitar su dificultad si lo escribi  para su amigo Pablo Sarasate, uno de los m s grandes violinistas de todos los tiempos? Uno de los m ritos de Sarasate fue, justamente, romper con el estereotipo paganiniano del virtuoso del viol n, siendo uno de los primeros violinistas en seducir merced a su sonido antes que con sus alardes t cnicos. Lo que



garbitasun gaindiezineko soinua, frikziorik gabeko arku-kolpe batek -garai hartan ohikoa zena baino zabalagoa- sorturiko *vibrato* batekin apaindua. Bere teknika bikaina, afinazio ezin hobea -posizio altuetan batez ere- eta jotzeko era pertsonala, esfortzurik gabekoa, naturala zirudiena erabat". Horrexegatik lilurutzen zuen Sarasatek. Carl Flesch biolin-jolearen hitzetan "ordura arte ezezaguna zen biolin-jole mota bat izan zen Sarasate, bere euspen dotore, eufonia eta teknika perfektu-arekin".

Musika-genero eta -behar ezberdinenetara egokitzekeo malgutasun handia zen Saint-Sa nsen ezaugarri nagusia -"jeinua ez den musikagile handi bakarra", bere garaikide baten hitzetan-. Historiako lehen zinema-partitura sinatzeko ohorea izan zuen, esaterako. *Biolin eta Orkestrarako 3. kontzertuaren* kasuan -forma-parallelismoak ditu Mendelssohnenarekin-, pasarte liriko eder eta luzeak idatzi zituen Sarasaterentzat, bere soinu bikaina azal zezan. Horien artean, entzule frantziarrek izaera espainiarrari buruz zuten ideiarekin bat doazen pasio-suminaldiak ageri dira, ustekabean. 1899an, Saint-Sa ns bizirik zegoela oraindik, musikagileak gainbegiraturiko biografia-ikerketa bat argitaratu zuen Otto Nietzelek. Kontzertua aztertu zuten bertan: "Lehen mugimenduaren ezaugarria ausardi goibel bat da; pasio handiagoarekin berragertzen da amaieran, instrumentu-errezitatibo batez aurkeztua. Erdiko mugimendua kontraste handia da: udaberriko eguzkiaren irribarra dauka. Klarinetearen nota baxuak eta biolin bakarlariaren zortzidun harmonikoak sorturiko efektu bitxia ageri da amaieran. Ereserki batek lasaitasuna dakar, finalearen pasio ekaizsuaren erdian; metaletan agertuko da gero, hariak berau uxatzen saiatzen diren bitartean. Pasarte bitxia da, tentuz sortua bai erritmoari bai tinbreari dagokionean ere".

m s fascinaba de Sarasate era su "sonido de insuperable dulzura y pureza, coloreado por un vibrato producido por un golpe de arco sin fricci n que resultaba un poco m s amplio de lo habitual en la  poca. Su magn fica t cnica, su afinaci n perfecta -especialmente en las posiciones altas- y su personal sima manera de tocar sin aparentar esfuerzo, como si fuera natural". Seg n el testimonio del violinista Carl Flesch, "por su elegante contenci n, eufon a y perfecci n t cnica, Sarasate represent  un tipo de violinista absolutamente nuevo".

Saint-Sa ns, que un contempor neo suyo defini  como "el  nico gran compositor que no es un genio", destac  siempre por su gran flexibilidad para adaptarse a los g neros y necesidades musicales m s diversas -sobre  l recae el honor de haber firmado la primera partitura cinematogr fica de la historia-. En el caso del *Concierto para viol n y orquesta n 3*, que presenta paralelismos formales con el de Mendelssohn, Saint-Sa ns concibi  para Sarasate hermosos y prolongados pasajes l ricos con los que exhibir su hermoso sonido, aunque s bitamente interrumpidos por arrebatos de pasi n que cumplian con la idea que ten a el p blico franc s del car cter espa ol. En 1899, a n en vida de Saint-Sa ns, Otto Nietzel public  un estudio biogr fico supervisado por el compositor, en el que figura este somero an lisis del concierto: "El primer movimiento se caracteriza por una determinaci n sombr a, que al final, presentado por un recitativo instrumental, reaparece con pasi n intensificada. El movimiento central est  en fuerte contraste, y sobre  l sonr e un sol de primavera. Hay al final un efecto sorprendente producido por las notas bajas del clarinete y los arm nicos del viol n solista en octava. Un himno sirve de episodio de apaciguamiento en medio de la pasi n tormentosa del finale; reaparece luego en los metales, mientras que unas cuerdas beligerantes intentan ahuyentarlo. Es un pasaje cuidadosamente concebido y peculiar, tanto en ritmo como en timbre".



II.

Sinfonía n^o1 en fa menor, opus 10

Dmitri Shostakovich (San Petersburgo, 25 de septiembre de 1906 - Moscú, 9 de agosto de 1975)

Konposizioari ere aplika dakioken terminoa da birtuosismo hitza. Dvorákek 27 bariazio eta "baria ezina" zen gai baten inguruko fuga bat erabili bazituen berea azaltzeko, Shostakovitchek oso goiz azaldu zuen musika idazteko bere gaitasun birtuoso: *lehen sinfoniarekin* izan zen, heldutasun eta teknika-maisutasun bikaineko lana hemezortzi urteko gazte batentzat. 1906an jaioa San Petersburgon -bere aita ingeniaria zen-, Shostakovitchek nahiko berandu hasi zituen bere piano ikasketak, bederatzi urterekin. Hamahiru urte zituela, ordea, Petrogradeko Kontserbatorio ospetsuan sartu zen. Piano ikasketak Leonid Nikolayevekin eta Rimsky-Korsakoven suhi Maximilian Steinbergekin egin zituen bertan. Gerra zibilaren eta gerra ondoko urte latz horien zehar ere ikasten jarraitu zuen. Kontserbatorioko zuzendari zen Glazunoven babesa izan zuen. Bere osasuna ahula bazen ere, zinema-pianista gisa lan egin zuen familiari laguntzeko, bere aita 1922an hil eta gero. Hurrengo urtean bukatuko zituen piano ikasketak eta konposizio titulua 1925ean lortu zuen, gaur entzungo dugun *Lehen Sinfoniarekin*. Bere estreinaldia Leningraden izan zen hurrengo urteko maiatzean. Berlinen eta Filadelfian interpretatu zen handik gutxira, arrakasta handia lortuz.

Beren gogo kritiko eta politikoarengatik zeresan ugari emango zuten hurrengo sinfoniek ez bezala, *Lehen Sinfonia* lañotasun-aro baten parte da. Shostakovitchek bizitza erraza ez bazen ere, bere heldutasunaren lanak markatuko zuten tentsio politikoak ezezagunak zituen hemezortzi urterekin. Nolanahi ere, *Lehen Sinfoniak* bere lengoaiaren ildo nagusiak agertzen ditu dagoeneko, non ironiak eta zentzu bikoitzak funtsezko papera daukaten. Beste egileen musikari eginiko aipu zuzen edo zeharkako ugari ditu sinfoniak. Ezbairik gabe sarkastikoa den lente baten bidez gehienetan; zorigaitzoko sentimenduez estaliak bestetan. Lan kosmopolita da *Lehen Sinfonia*, non entzuleak Prokofiev zein Schoenberg, Tchaikovsky zein Mussorgsky, balleta zein *vaudevillea* igartzen dituen. Guzti hori, intuizio filosofiko batetik abiatuta kutsu politikoak hartuko dituen arte-kontzepzio baten menpe.

El virtuosismo es un término aplicable también a la composición. Si Dvorák demostró el suyo creando veintisiete variaciones y una fuga sobre un tema "imposible" de variar, Shostakovich ofreció una de las mayores pruebas de su virtuosismo como compositor nada más comenzar su carrera, con la *Sinfonia n^o1*, un ejercicio de extraordinaria madurez y pericia técnica para un joven de tan solo dieciocho años. Nacido en San Petersburgo en 1906, hijo de un ingeniero, Shostakovich recibió sus primeras lecciones de piano relativamente tarde, a los nueve años, pero a los trece ya estaba listo para ingresar en el exigente Conservatorio de Petrogrado. Allí estudió piano con Leonid Nikolayev y composición con Maximilian Steinberg, el yerno de Rimsky-Korsakov, continuando su formación durante los difíciles años de la guerra civil y la postguerra. Recibió la protección del director del conservatorio, Glazunov, y aunque su salud no era del todo buena, trabajó paralelamente como pianista de cine para ayudar a su familia tras la muerte del padre en 1922. Shostakovich finalizó sus estudios de piano en 1923 y en 1925 se graduó en composición con la obra que escucharemos esta noche, la *Sinfonia n^o1*, estrenada en Leningrado en mayo del año siguiente y poco después en Berlín y Filadelfia, cosechando un importante éxito.

A diferencia de las sinfonías posteriores, que han dado pie a tantas especulaciones sobre la intención crítica y política de su contenido, la *Sinfonia n^o1* pertenece a una etapa de inocencia. La vida de Shostakovich no era fácil, pero a los dieciocho años aún no se había visto expuesto a las tensiones políticas que marcarían su obra de madurez. En cualquier caso, en la *Sinfonia n^o1* se detectan ya las grandes líneas de su lenguaje, en el que la ironía y el doble sentido juegan un papel fundamental. La sinfonía está repleta de referencias más o menos directas a la música de otros, a menudo a través de una lente inconfundiblemente sarcástica, otras veces revestidas de un sentimiento trágico. La *Sinfonia n^o1* es una obra kosmopolita en la que uno lo mismo cree detectar a Prokofiev que a Schoenberg, a Tchaikovsky que a Mussorgsky, el ballet y el vodevil. Todo ello al servicio de una



Honelako iruzkina jaso zuen Mark Wigglesworth zuzendari ingelesak, *Lehen Sinfoniaren* inguruan, Shostakovitchen sinfonien zikloa maisuki grabatu zuenean: "Gizakiak titiritero ikusezinen mendeko txotxongilo gisa hartzen dituen ezohiko ideia ageri zaigu, musikagilearen ibilbide osoan azalduko dena, baita berrogeita hamar urte igarota idatziko zuen azken sinfonian ere". Aipatu teoriak konduktismoari jarraitzen dio, oso arrakastatsua garai hartako artista errusiarren artean, Shostakovitchek gaztetan oso gertu izan zuen antzerkiaren munduan batez ere. *Lehen Sinfoniaren* lehen zatiak -non *Petrushka* giza sentimenduak dituen txotxongiloaren espirituak gaineratik hegan egiten duen- teoria hori babestuko luke.

*Petrushka*ren osagaiak nabariak dira lehen mugimenduan, sinfonia irekitzen duen trompeta eta fagoteko duotik hasita. Ondoren, klarineteak aurkezturiko martxa batek eta flautaren bals-erritmo batek Stravinskyren balletaren lehen eszena gogoratzen digute, Tchaikovsky eta Prokofiev ironikoki omentzen duten orkestrazio-klaxe ugariarekin onduta. Bigarren mugimenduan, pianoaren erabilera nabariak eta ekialdeko izaera duen doinuek *Petrushka*ren bigarren eta hirugarren eszenak dakartzate gogora. *Lento* hirugarren mugimendua sinfoniaren norabidea aldatzen du: planteamendu tragiko bat azalduz, ironikoaren ordez. Doinu bakarlari ilun ezberdinek -trompeta eta atabalaren ardura diren hileta-konnotazioez beteta- eta Wagnerren *Sigfridoari* eginiko aipu batek mugimendua *Allegro molto* amaierarantz eramaten dute. Aipatua triunfalismoaren eta etsipenaren artean ibiliko diren etorkizuneko sinfonien amaieren paradigma da. Kasu honetan, finaleak Rachmaninoven pianorako kontzertuei eginiko omenaldi zinikoa gorde lezake.

concepci n del arte que, partiendo de una intuici n filos fica, termina adquiriendo tintes pol ticos.

En un comentario a su revelador ciclo de grabaciones de las sinfon as de Shostakovitch, el director ingl s Mark Wigglesworth detecta en la *Sinfon a n 1* "la desconcertante idea de los seres humanos como t teres, con sus acciones manipuladas desde lo alto por invisibles titiriteros, que permaneci  con el compositor todo el camino hasta su  ltima sinfon a, escrita casi cincuenta a os m s tarde". Esta idea se identificar  plenamente con las teor as del conductismo, en boga entre los artistas rusos de la  poca y especialmente en los c rculos teatrales a los que Shostakovitch era muy cercano en su juventud. La primera parte de la *Sinfon a n 1*, en la que sobrevuela el esp ritu de *Petrushka*, la marioneta con sentimientos humanos, apoyar  esta teor a.

Los elementos de *Petrushka* son evidentes en el primer movimiento desde el mismo d o de trompeta y fagot con el que arranca la sinfon a. M s adelante, un ritmo de marcha presentado por el clarinete y otro de vals introducido por la flauta rememoran diversos pasajes de la primera escena del ballet de Stravinsky, sazonado con algunos clich s de orquestaci n que rinden ir nica pleites a a Tchaikovsky y Prokofiev. En el segundo movimiento, el destacado empleo del piano y una melod a orientalizante recuerdan tambi n a las escenas segunda y tercera de *Petrushka*. La sinfon a modifica su rumbo en el tercer movimiento, *Lento*, intercambiando su planteamiento ir nico por uno tr gico. Una sucesi n de oscuras melod as solistas, salpicadas de connotaciones f nebres en la trompeta y la caja, y una cita del *Sigfrido* de Wagner encauzan el movimiento hacia el *Allegro molto* final, paradigm tico de lo que ser n muchos finales de sus futuras sinfon as, fluctuantes entre el triunfalismo y la desesperanza. En este caso, en finale parece esconder tambi n un c nico homenaje a los conciertos para piano de Rachmaninov.

**Ana Mar a Valderrama**, biolina / viol nwww.anamariavalderrama.com

2011. urtean XI. Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketan lehenbiziko saria eta publikoaren sari berezia eskuratu zituen, historian sari horiek merezi izan dituen lehenbiziko espainiar biolinjotzailea bilakatu zelarik. Anna Baget, Zakhar Bron eta Yuri Volguin-en ikasle izan zen Madrilen eta egun hobekuntza lanetan ari da Nora Chastain-ekin Berlingen. Zubin Mehtaren zuzendaritzapean bakarlari gisa debutatu ondoren, emanaldi ugari eskaini ditu jada Ingalaterra, Alemania, Frantzia, Portugal, Errusia, Mexiko, Kolonbia eta Estatu Batuetan.

Ganadora del 1er Premio y el Premio Especial del P blico en el XI concurso Internacional de Viol n Pablo Sarasate, en 2011, Ana Mar a Valderrama es la primera violinista espa ola de la historia en conseguir este galard n. Estudi  con Anna Baget, Zakhar Bron y Yuri Volguin en Madrid y actualmente se perfecciona con Nora Chastain en Berl n. Tras su debut como solista bajo la direcci n de Zubin Mehta, su intensa carrera concert stica la ha llevado ya a actuar en pa ses como Inglaterra, Alemania, Francia, Portugal, Rusia, M xico, Colombia o Estados Unidos.

**Ilyich Rivas**, zuzendaria/director

1993an Venezuelan jaioa, aitarekin ekin zion zuzendaritza ikasteari. 2009an Gustav Meier eta Vladimir Jurowskirekin ikasteko aukera eman zioten bekak eskuratu zituen. Eta handik gutxira profesional gisa debuta egin zuen Estatu Batuetan, Atlantako Orkestra Sinfonikoa zuzenduz. Orduetik Glyndebourne, Verbier eta Lucernako jaialdietan aritu da eta 2012/2013 denboraldian London Philharmonic orkestran zuzendari laguntzaile gisa eta Suedia eta Frankfurtoko irratietako orkestra sinfonikoen mailakoak zuzenduz debutak ditu.

Nacido en Venezuela en 1993, empez  sus estudios de direcci n junto a su padre. En 2009 recib  varias becas que le permitieron formarse junto a Gustav Meier y Vladimir Jurowski y poco despu s debut  como profesional en Estados Unidos, dirigiendo la Sinf nica de Atlanta. Desde entonces ha dirigido en los festivales de Glyndebourne, Verbier y Lucerna, y en la temporada 2012/2013 debutar  como asistente de la London Philharmonic y al frente de orquestas tan destacadas como las sinf nicas de las radios de Suecia y Frankfurt.



Gaurko kontzertua hitz gurutzatutan

El concierto de hoy en palabras cruzadas

BERTIKALA / VERTICAL

1. Shostakovitchek *1. Sinfoniaren* hirugarren mugimenduan aipatu Wagnerren operaren izenburua / Título de la ópera de Wagner que Shostakovitchek cita en el tercer movimiento de la *Sinfonía n.º1*.

3. Shostakovitchek *1. Sinfonian* entzuten den lehenbiziko instrumentua / Primer instrumento que suena en la *Sinfonía n.º1* de Shostakovitchek.

4. Saint-Saënsen *3. Kontzertuak* parekotasunak ditu konpositore honen *Biolin eta orkestrarako kontzertu* famatuarekin / Autor con cuyo célebre *Concierto para violín y orquesta* presenta paralelismos el tercero de Saint-Saëns.

6. Shostakovitchek idatzitako sinfonia kopurua / Número de sinfonías que escribió Shostakovitchek.

7. Saint-Saënsen biolinjotzaile honi eskaini zion bere *3. Kontzertua* / Violinista dedicatario del *Concierto para violín n.º3* de Saint-Saëns.

9. Erreferentziako errusiar konpositore hau Petrogradoko Kontserbatorionoko zuzendaria zen Shostakovitchek ikasle izan zen garaian / Compositor ruso referencial y director del Conservatorio de Petrogrado en la etapa en que estudió Shostakovitchek.

10. Dvoráken musikak eragin garrantzitsua izan zuen *Enigma Bariazioen* egile konpositore ingeles honengan / Compositor inglés, autor de las *Variaciones Enigma*, sobre el que la música de Dvorák ejerció una importante influencia.

HORIZONTALA / HORIZONTAL

2. Dvoráken *Bariazio Sinfonikoek* oinarri duten obra koralaria izena ematen dion instrumentista.


Instrumentista que da título a la obra coral en la que están basadas las *Variaciones Sinfónicas* de Dvorák.

5. Brahmsen editorea, gerora Dvorákena ere izango zena / Editor de Brahms y, posteriormente, también de Dvorák.

8. *Bariazio Sinfonikoak* Londres eta Vienan berriz estreinatu zituen zuzendari ezagunaren abizena.

Apellido del célebre director que reestrenó las *Variaciones Sinfónicas* en Londres y Viena.

11. Shostakovitchek *1. Sinfoniaren* lehenbiziko zatian eragina izan zuen Stravinskyren balleta / Ballet de Stravinsky que influye la primera parte de la *Sinfonía n.º1* de Shostakovitchek.




Gure iradokizun diskografikoa
Nuestra sugerencia discográfica

A. Dvorák: Variaciones Sinfónicas.
Budapest Festival Orchestra.
Zuz./Dir.: Ivan Fischer. Channel Classics, 2007.

D. Shostakovitchek: Sinfonía n.º1.
Netherlands Radio Philharmonic Orchestra.
Zuz./Dir.: Mark Wigglesworth. BIS, 2012.

EclipseCrossword.com



EUSKADIKO
ORKESTRA



**Hurrengo
abonu
kontzertua**
Pr ximo
concierto
de abono

APIRILAK 24 DE ABRIL, 2013
Auditorio Baluarte Auditorioa, 20:00h

Miguel  ngel G mez Mart nez
zuzendaria / director
Josu De Solaun
pianoa / piano

L.V. Beethoven: Egmont. Obertura
L.V. Beethoven: Concierto para piano n 5
L.V. Beethoven: Sinfon a n 7

**Sarreren
salmenta**
Venta de
entradas

www.baluarte.com
www.ticketmaster.es
902 15 00 25

Taquilla Auditorio Baluarte Auditorioko Leihatila
948 06 60 60
Astelehenetik larunbatera / De lunes a s bado
11:00 -14:00 / 17:00 -20:00

**Euskadiko Orkestraren berri
izan nahi baduzu, jar zaitez
gurekin harremanetan edo
izena eman gure webgunean
EUSKOR buletin digitalean.**
Si quieres estar al d a en lo que
a la Orquesta de Euskadi se
refiere, ponte en contacto con
nosotros o suscr bete en nuestra
web al bolet n digital EUSKOR.

Miram n Pasealekua, 124
20014 Donostia-San Sebasti n
943 01 32 32
www.euskadikoorkestra.es

Siguenos en:




flickr

YouTube





EUSKADIKO
ORKESTRA



www.euskadikoorkestra.es